

6/12

*irizpena*

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ADMINIS-  
TRAZIO-PROZEDURETAN ZERBITZU ELEKTRO-  
NIKOAK ERABILTZEAREN ETA EUSKAL AUTONO-  
MIA ERKIDEGOKO INGURUMENEAN ERAGINA  
DUTEN JARDUEREN ERREGISTROA SORTU ETA  
ARAUTZEAREN INGURUKO

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko otsailaren 22an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena <sup>6/12</sup>



## **I.- AURREKARIAK**

---

2012ko otsailaren 3an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, Ingurumenarekin lotutako administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoak erabiltzearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa sortu eta arautzearen inguruko Dekretuaren Proiektuari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei berehala bidali zieten dokumentuaren kopia bat, beren proposamenak eta iritziak helarazteko eta dagokion Lan Batzordeari bidaltzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoari jarraiki.

Garapen Batzorde Ekonomikoa 2012ko otsailaren 17an batzartu zen, Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Egun berean, Batzordeak Irizpen Proiektua onetsi zuen eta 2012ko otsailaren 22ko Euskal GABaren Osoko bilkurara helarazi den, eta, bertan, aho batez onetsi zen.

## **II.- EDUKIA**

---

Legearen Aurreproiektuko testuak Zioen Azalpen bat eta 20 Artikulu ditu, honela banatuta: 4 Kapitulu eta Xedapen Gehigarri 1, Xedapen Iragankor 1, 2 Azken Xedapen eta Eranskin bat.

### **I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Helburua
2. artikulua.- Printzipio orokorrak
3. artikulua.- Definizioak

## **II. KAPITULUA.- INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ADMINISTRAZIO-PROZEDUREN TRAMITAZIO TELEMATIKOA**

4. artikulua.- Ingurumenaren Informazioaren Kudeaketa Integralerako Sistema, IKS-eeM Sistema
5. artikulua.- Aplikazio-eremua
6. artikulua.- Egoitza elektronikoa
7. artikulua.- Sarrera edo/eta elkarrekintza IKS-eeM Sistemarekin
8. artikulua.- Hirugarren pertsonak ordezkatzeko gaitzuntza

## **III. KAPITULUA.- INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK SINPLIFIKATZEKO ETA ARINTZEKO NEURRIAK**

9. artikulua.- Eskaera Instrumentu Bakarra: Ingurumen-arloko Deklarazioa Eskaera (e-DMA S).
10. artikulua.-Ingurumenarekin lotutako informazioaren aldizkako transakzioarako instrumentua. Ingurumen-arloko Deklarazioa Jakinarazpena (e-DMA N).
11. artikulua.- Transakzioekin lotutako beste betebeharrak
12. artikulua.- Ingurumen-arloko informazioarekin lotutako bestelako transakzioak
13. artikulua.- Transakzio-instrumentuak eguneratzea
14. artikulua.- Erantzukizun Aitorpenaren eta alde aurretiko jakinarazpenaren ereduak
15. artikulua.- Ingurumen-arloko postontzi elektronikoa

## **IV. KAPITULUA.- INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN INSTALAZIOEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREGISTROA.**

16. artikulua.- Ingurumenean eragina duten instalazioen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren ezaugarriak
17. artikulua.- Erregistroaren xedea eta edukia
18. artikulua.- Erregistroaren egitura
19. artikulua.- Erregistroaren eginkizunak
20. artikulua.- Elebitasuna

**XEDAPEN GEHIGARRIA**  
**XEDAPEN IRAGANKORRA**  
**LEHENENGO AZKEN XEDAPENA**  
**BIGARREN AZKEN XEDAPENA**

**I. ERANSKINA. DEKRETU HAU APLIKATZEN ZAIEN INGURUMEN-  
ARLOKO ADMINISTRAZIO-PROZEDUREN ZERRENDA**

**Zioen azalpena**

Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko estatuko Legeak herritarren eskubideak jasotzen ditu, Administrazioarekin harremanak izateko eta beren eskubideak erabiltzeko baliabide elektronikoak erabiltzeari dagokionez.

Testuinguru berri honetan onetsi ziren, 2011ko maiatzaren 31n, Berrikuntza Publikoaren eta Administrazio Elektronikoaren Plana; 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuetako jardueretara libreki sartzeari eta horietan aritzeari buruzkoa; eta 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena.

Arau-aurreikuspen horiei guztiei jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, bere eskumenak gauzatu, ingurumenaren metadatuak eta informazioa ***IKS-eeM Sistemari (Ingurumenaren Informazioaren Kudeaketa Integralerako Sistema)*** benetan barne hartuz doa.

Ondoren, bere azalpenean adierazten du helburu batzuk betetzeko — besteak beste, aipatzekoa da kutsagarrien transferentziaren eta isurtzeen erregistro europarreko (PRTR) datuak, hondakinen kudeaketarekin lotutako dokumentuak, Ingurumenaren arloko Truke Elektronikorako Hizkeraren garapena (E3L delakoa), eta garapen iraunkorreko eredu berri bat (Ecoeuskadi 2020) lortzeko aurrera egitea— ezinbestekoa dela IKS-eeM Sistemari azken bultzada bat ematea, batetik, ***dagokion araudia garatuz eta***, bestetik, bertan ***EAEko ingurumenean eragina duten jardueren erregistro bakarra jasoz.***

Helburu horiek erdiesteko eta sistema eraginkorra izateko ***nahitaezkoa da ingurumenaren arloko administrazioarekin diharduten erakundeek derrigorrez erabili behar izatea sistema hori.***

Izatez, Estatuko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak eta EAEko abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak, administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duenak, xedatzen dute prozedura elektronikoa bakoitzaren arauetan Administrazioarekin baliabide elektronikoa soilik erabiliz komunikatzeko betebeharra ezarri ahalko dela, interesdunak pertsona juridikoa direnean edo pertsona fisikoen kolektiboak direnean eta beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanagatik edo ziurtatutako beste arrazoi batzuegatik berraztertutako badute beharrezkoak diren baliabide teknologikoa eskuragarri eta erabilgarri dituztela.

Ondoren adierazten da Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak nahiz Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak azken urteotan egin dituzten ahaleginen arabera esan daitekeela azken pauso hori emateko egoera ezin hobean gaudela; eta Batzardeak Europako Parlamentuari, Batzardeari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari Europar Batasuneko arauketari argiaren (Smart Regulation) inguruan helarazitako Jakinarazpenak bereziki azpimarratzen du ezinbestekoa dela neurri osatuak eta eraginkorrak lantzea, eta, kasu askotan, premiazaioak direla adierazten da.

## **Xedapen Testua**

***I. Kapituluak.- Xedapen Orokorrak*** atalean 1. artikulutik 3. artikulura jaso dira. Bertan, honakoa arautzen da:

Dekretu Proiektuaren helburu bikoitza: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioaren eskumeneko ingurumen-arloko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilpena arautzea; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren eragina duten jarduerak guztiei buruzko informazioa barne hartzen duen Erregistro bat sortu eta arautzea.

Printzipio orokorrak.

Oinarrizko kontzeptu batzuk definitzea, hala nola: entitatea, jarduera-zentroa, jarduera-egoitza, ingurumenaren arloko identifikazio-zenbakia, Environmental Electronic Exchange eta Environmental Electronic Exchange Point.

## ***II. Kapitulumua.- Ingurumenarekin lotutako administrazio-prozeduren tramitazio telematikoa*** (4. artikulutik 8. artikulura)

4. artikuluan, IKS eeM Sistema, Ingurumenaren arloko Informazioa Osoki Kudeatzeko Sistema, definitzen da. Kudeaketa telematikorako tresna hori EAEko Herri-administrazioak, bere eskumenen barruko ingurumen-arloko administrazio-prozedurak baliabide elektronikoen bidez izapidetzeko, erakundeen eta, oro har, herritarren eskura jartzen dituen teknologia berrietara dago bideratuta. IKS eeM Sistemak E3P deritzon plataformarekin jardungo duela eta fitxategien eta dokumentuen formatuak E3L Ingurumenaren arloko Metadatuaren truke Elektronikorako hizkera errespetatuko duela adierazten da, baita [www.e3l.es](http://www.e3l.es) helbide elektronikoa indarrean dauden eskemen eta bertsioen arabera izango dela ere.

5. artikuluan Dekretuaren aplikazio-esparrua jaso da. 6. artikulua egoitza elektronikoa buruzkoa da, eta IKS eeM Sistemaren funtzionamendu-arau orokorrak, egitura, formatuak eta funtzioak EAEko Herri-administrazioaren Egoitza Elektronikoa argitaratuta egongo direla xedatzen da. 7. artikulua, berriz, IKS-eeM Sistemara sartzearen eta sistema horren bidezko elkarrekintzaren ingurukoa da. 8. artikulua xedatzen du IKS eeM Sistemaren bidez metadatuaren trukeak edo/eta transakzioak oro har egin ahalko dituztela gaitutako erakundeek, baita zuzenean ere erakunde interesdunek.

## ***III. Kapitulumua.- Ingurumenarekin lotutako administrazio-prozedurak sinplifikatzeko eta arintzeko neurriak*** (9. artikulutik 15. artikulura)

9. artikulua xedatzen du ingurumenaren arloko administrazio-prozedura guztien tramitazio elektronikoa IKS eeM Sistemaren helburu horretarako jarritako teletramitaziorako tresna bakar eta komun baten bidez egingo



dela, Ingurumen Adierazpena Eskaera izendapenarekin (e-DMA S). 10. artikulua, berriz, urteroko aldizkakotasuna duten ingurumen-arloko informazioarekin lotutako transakzioen betebeharrak guztiak —Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten zentro edo egoitzetan eragina dutenak— Ingurumen Adierazpena Jakinarazpenaren (e-DMA N) bitartez egingo dela xedatzen du. 11. artikuluan adierazten da gainerako transakzio-betebeharrak IKS-eeM Sistemak horretarako dauden transakzio-tresnak erabiliz gauzatuko direla. 12. artikuluan adierazten da IKS-eeM Sistemak estaldura eman ahalko diela ingurumenaren arloko informazioaren beste jarduera batzuei, aurreko artikuluetan aipatzen ez direnei. 13. artikulua transakzio-instrumentuak eguneratzeari buruzkoa da, 14. artikulua erantzukizun aitortzearen eta alde aurretiko jakinarazpenaren ereduari buruzkoa eta 15. artikulua ingurumen-arloko postontzi elektronikoari buruzkoa.

6/12*i*

#### ***IV. Kapituluan Ingurumenean eragina duten instalazioen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa arautzen da (16. artikulutik 20. artikulura).***

16. artikuluan ingurumenean eragina duten instalazioen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren ezaugarriak zehazten dira. 17. artikuluan Erregistroaren xedea eta edukia jaso dira. Hau da, modu iraunkor, integratu eta eguneratua izatea ingurumenaren gainean eragina duten eta EAEn egiten diren instalazioen inguruko informazio guztia; eta edukiaren arloari dagokionez esaten da erregistroan sartuko direla ingurumen arloan eskuduna den Sailak emandako baimen guztien nahiz Sail horren aurrean aurkeztutako alde aurretiko jakinarazpenen inguruko datu guztiak. 18. artikulua erregistroaren egiturari buruzkoa da: PRTR (elementu kutsatzaileen transferentzien eta isurtzeen Euskal Erregistroaren menpeko Instalazioak), IPPC (ingurumenaren arloko baimen integratuaren menpeko instalazioak —IPPC—), Klima-aldaketa eta airearen kalitatea, Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Beste jarduera batzuk, EMAS eta Ekoetiketak, eta Erakundeak. 19. artikuluan Erregistroaren eginkizunak jaso dira. 20. artikulua elebitasunaren ingurukoa da.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

**XEDAPEN IRAGANKORRA. Ingurumenaren arloko Lankidetzaren Erakundeak**


**LEHENENGO AZKEN XEDAPENA: Gaikuntza**  
**BIGARREN AZKEN XEDAPENA: Indarrean sartzea.**

**1. eranskina: Dekretu hau aplikatzen zaien ingurumen-arloko administrazio-prozeduren zerrenda.**

### ***III.- OHARRAK***

---

#### **III.1 Ohar Orokorrak**

Euskal GABak positibotzat jotzen du kontsultari dagokion Dekretuaren Proiektua, araudi-hutsune bat beteko baitu. 6/12 

Testua nahiko laburra da, eta hori eskertzekoa da honelako esparruetan, baina batzuetan faltan bota dugu Dekretuari egotzi zaizkion alde onen inguruko hausnarketa bat, edo/eta zehaztasun handiagoa gai batzuetan.

Bada, Zioen Azalpenean nahiko sarrera osatua egiten da herritarrek Interneten bidez Administrazioarekin duten harremanaren gaineko araudiak izan duen bilakaerari buruz, baliabide hori erabiltzea beharrezkoa dela justifikatzeko, hori baita araudi honen lehentasunezko xedea. Hala ere, Ohar Zehatzetan aipatu den bezala, paragrafo batzuk sartu dira, eta bertan Dekretuari egotzen zaizkion alde positibo batzuk gero ez dira helburuetan eta artikuluetan islatu.

Oso positibotzat jotzen dugu Erregistroa sortzea (datuak ofizios lekualdatuko dira bertara). Hala ere, azpimarratzekoa da ez dela adierazten publikoa ala erresebatua izango den.

Paraleloki gailendu nahi dugu honelako Dekretu batean beti egon behar dela alde aurretiko eta oinarritzko baldintza bat, hau da, IKS-eeM programa arautzen duen eragile teknikoak behar bezala funtzionatu behar du eta irigarria eta erabilerraza izan behar du. Bere benetako aplikazioa baldintza horren araberakoa izango da, beste edozeinen araberakoa baino gehiago, legezko arau batean derrigorrezkotzat jotzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Azkenik, gure ustez, lege-testu hau lehenago aurkeztu eta onetsi behar zen, IKS-eeM sistema 2010eko urtarrilaren 2an jarri baitzen martxan Ingurumenarekin lotutako Informazioaren tresna telematikoen bidezko sistema gisa, urteko ingurumen-datuak igortzeko nahiz —eta batik bat— hondakinen kudeaketa izapidetzeko.

Eta, bigarrenik, deigarria da Dekretu Proiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoaren ---- Dekretua atera baino lehenago onetsi nahi dela; izan ere, gure ustez, kontsulta honi dagokionak bestean ezarritakoa bete beharko du.

### **III.2 Ohar Zehatzak**

#### **Erregistroaren Izena**

Berez, “ingurumenean eragina duten jarduerak” terminoa zuzena da, baina lagunarteko hizkeran, agian, “estigmatizatzaileegia” izan daiteke. Gure ustez, komenigarria izango litzateke erreferentzia neutroago bat erabiltzea, esate baterako, **“ingurumenarekin lotutako informazioa sortzen duten jarduerak”**.

Ondorioz, Dekretuaren Proiektuaren egitura hauetara jo beharko litzateke ordezkapena egiteko:

- Izenburua.
- Zioen Azalpena (2. orrialdea, 8. paragrafoa).
- 1.2. artikulua.
- IV. Kapituluaren izenburua.
- Artikulu hauek: 16, 17, 18, 20.
- Lehenengo azken xedapena.

#### **Zioen Azalpena**

- Ez du izenbururik, baina **“Zioen Azalpena”** izan ohi du izenburu. Sartzea proposatzen da.
- Lehenengo paragrafoan gomendatzea amaieran hau eranstea:

**“eskubideak benetako berdintasunezko baldintzetan bermatuz”.**

- 2. orrialdeko 3. paragrafoan honakoa eranstea gomendatzen da: “Bada, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, **2000-2005 Plan Estrategikoaren esparruan...**”, proposatutako lege-testuan ez baitago inolako erreferentziarik “Prozeduren modernizazioari, kudeaketari, kalitateari eta mekanizazioari buruzko 2000-2005 Plan Estrategikoa”ri buruz.
- 2. orrialdean, 5. paragrafoan, beharrezkotzat jotzen dugu bezeroak hitza kentzea eta horren orde **“herritarrik”** hitza erabiltzea.
- 2. orrialde horretako 7. paragrafoan, ez da eragile ekonomikoak, zientifiko-teknologikoak eta gizarte-eragile interesgarriak zeren erantzule egin nahi diren adierazten duen testurik jaso.
- 3. orrialdean, 4. paragrafoa kentzea proposatzen dugu, testuingurutik kanpo baitago eta ez du ezer gehitzen. Europako araudi garrantzitsuagoa erabili gabe dago, adibidez, 2004ko abenduan, Ministroen Batzordeak onartu zuen gomendio batek esaten zuen administrazio elektronikoa ez dela gai tekniko huts bat, gobernantza demokratikokoa baizik; eta Manchester-eko Gailurraren ondoren, ministerio-ebazpen batek Batasuneko administrazio elektronikoa garatzeko helburu zehatzak ezarri zituen.
- Halaber, Legeen Aurreproiektu edo/eta Dekretuen Proiektu batzuetan, sarritan ikusten dugu beren Zioen Azalpenean dokumentuari egozten zaizkion alde positibo batzuk gero ez direla helburuetan eta artikuluetan islatzen. Eta hori gertatzen da kontsultari dagokion Dekretuaren Proiektuan.
  1. artikuluan adierazten denaren arabera, Dekretuak bi helburu ditu: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioaren eskumeneko ingurumen-arloko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoak erabiltzea arautzea; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jarduera guztiei buruzko informazioa barne hartzen duen Erregistro bat sortu eta arautzea.
    - o Deigarria iruditzen zaigu 2. orrialdeko 6. paragrafoan Ecoeskadi 2020 Estrategia azaltzen duen testu bat sartzea baina ez adieraztea zein neurritan den lagungarria Dekretua Estrategiari dagokionez. Ondorioz, gure ustez, testu hori ez dago justifikaturik. Eta, nolanahi

ere, ekarpen txikia egingo dio, onenean ere; horrenbestez, hain testu luzearen egokitasuna zalantzarria da.

- o 3. orrialdeko 5. paragrafoan jasotako adierazpena gehiegizkoa iruditzen zaigu, hau da, “funtsezkoa da araudi egokia izatea, hazkuntza zentzudun, iraunkor eta barne-hartzailea lortzeko, Europa 2020 Estrategian definitu diren bezala”. Araudia Estrategia lortzeko laguntza “erabakigarria” dela uler daiteke inplizituki.
- o 3. orrialdeko 6. paragrafoko testua kritikagarria da. Honakoa dio: “Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) Euskal gizarte modernoak behar dituen paradigma-aldaketak errazten dituzte”. Paradigma bat gizarte baten jokabideak eta helburuak zehazten dituen ideien sistema edo ikuspegi bat da. Ez da azaltzen zein paradigma aldatu nahi den, ezta aldaketa horiek zein norabide hartuko duten ere. Horrez gain, ez da azaltzen tresna teknikoek (IKTek) nola erraztuko duten gizartean paradigma aldaketa bat bezain sakona eta erabakigarria den zerbait.

6/12*j*

### 3. Artikulua. Definizioak

Honakoa eranstea komeni da:

- o **“Elkarreraginkortasuna: Informazio-sistemek beren artean datuak eta ezagutza trukatzeko duten gaitasuna da, eta, ondorioz, informazio-sistemak euskarri gisa dituzten prozeduren gaitasuna ere bai”.** Artikuluetan Proiektua aipatu egiten da, baina ez da behin ere definitzen.
- o **“Metadatuak: beste datu batzuk definitzen eta deskribatzen dituen datua. Mota batekoak baino gehiagotakoak izan daitezke.”**

Bi definizioak herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoa tartik sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean jada jaso dira; baina, hala ere, komenigarria izango litzateke sartzeari proposatzen den lege-testuan egiten diren erreferentziak direla-eta, testuaren kontzeptu tekniko batzuk argitzeko. *conceptos técnicos del mismo.*

- o Testuan erabiltzen diren erreferentzia tekniko batzuk irismen zalantzarrikoak dira edo ez dira sarritan erabiltzen. Adibidez:

“eDMA-S”, “eDMA-N”, “IKS-eeM”, “ERP”, aplikazio informatikoaren izendapen ofiziala zehaztu behar da (“IKS eeM” ala “IKS-eeM”), “EGIA”, “EGD” eta “ECA”, besteak beste.

#### **4. artikulua. Ingurumenaren Informazioaren Kudeaketa Integralerako Sistema, IKS eeM Sistema**

5. idatz-zatian [www.e3l.es](http://www.e3l.es) web orriari erreferentzia egiten zaio, baina baliteke denbora joan ahala erreferentzia hori aldatzea. Hori dela eta, [www.e3l.es](http://www.e3l.es) helbide elektronikoaren ordeztuz, **”plataforma horren egoitza elektronikoa ofiziala”** ipintzea proposatzen dugu.

#### **7. artikulua. Sarrera edo/eta elkarrekintza IKS eeM Sistemarekin**

6/12 

- Testuko 2. idatz-zatian, **“de”** jarri behar da “a través”en ostean.
- 4. idatz-zatia sartzea eta bertan honakoa adieraztea proposatzen dugu: **“Hondakinak ekoizten, kudeatzen eta garraiatzen dituztenek, IKS eeM sistemara sartzeko, ingurumenaren arloko identifikazio-zenbakia (IIZ) izan beharko dute”**.

Beharrezkoa da ohar hori sartzea; izan ere, IIZ edo zentroaren kodea hondakinak ekoizten edo kudeatzen dituen zentroa zehatz-mehatz identifikatzen duen zenbaki bat da. IIZ zentroa dagoen Autonomia Erkidegoko hondakinen arloko agintaritzak eskudunak ematen du. Garraiolarien kasuan, IIZ sozietatearen egoitzarekin lortzen da, eta enpresaren helbide soziala dagoen autonomia erkidegoak esleitzen du. IIZ hori garraiolariek erabiliko dute estatu osoan jarduteko. Hori dela eta, eta bere zehaztasuna kontuan hartuz, lege-testuaren artikuluetan jaso behar da.

#### **16. artikulua. Ingurumenean eragina duten instalazioen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren ezaugarriak**

Azpimarratzekoa da ez dela adierazten erregistroa publikoa ala erreserbatua den. Gure ustez, beharrezkoa da alderdi hori zehaztea eta espresuki jasotzea.

## **17. artikulua. Erregistroaren xedea eta edukia**

2. idatz-zatian, ondokoa dioen 2. paragrafo bat erantsi beharko litzateke: **“Bereziki, alde zuzeneko jakinarazpen eta baimen horien aldaketak, ezeztapenak eta berritzeak jasoko dira.”**

Izan ere, datu eguneratuak eta fidagarriak eduki nahi badira, beharrezkoa izango da hasierako jakinarazpena edo baimena ematea ez diren gainerako ekintza guztiak jasotzea. Lege-testuan jada datu guztiak aipatzen dira, baina bereziki garrantzitsuak direnak nabarmentzea komeni da.

## **18. artikulua. Erregistroaren Ebaluazioa**

A) PRTR: Elementu kutsatzaileen transferentzien eta isurtzeen Euskal Erregistroaren menpeko Jarduerak idatz-zatiari dagokionez, esan beharra dago ez dugula izen hori duen inolako erregistro ofizialik aurkitu, eta, ondorioz, horren ordez ondorengo testu hau jartzea proposatzen dugu:

A) PRTR: **“Elementu kutsatzaileen transferentzien eta isurtzeen erregistroa egiteari buruzko eta Batzordearen (E-PRTR) 91/689/CEE eta 96/61/CE Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2006ko urtarrilaren 18ko 166/2006 Araudiaren (CE) aplikazio-esparruan sartutako”** jarduerak.

## **19. artikulua. Erregistroaren eginkizunak**

**“e) Legez edo arauz egozten zaien beste edozein”** idatz-zatia eranstea komeni da.

## **Xedapen Iragankorra. Ingurumenaren arloko Lankidetzaren Erakundeak**

- “Entidad de Colaboración Ambiental” (ECA) terminoaren erabilpen ofizialari dagokionez, azpimarratzekoa da merkatuan oso antzeko marka komertzial bat dagoela, oso ezaguna dela eta sigla horiek erabili ohi dituela.

Enpresa honi buruz ari gara: Entidad Colaboradora de la Administración, S.A.U. (ECA), Bureau Veritas Taldekoa (<http://www.eca.es>)

- Dekretuaren Proiektuaren testu osoan Sailaren izena kontu handiz jaso da, eta, horrela, etorkizunean sailaren izena aldatuko balitz nahasteak egotea ekiditen da; baina, hala ere, “Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza”ri esplizituki egiten zaio erreferentzia, eta horren ordez “... **arloko administrazio-erakunde eskudunak**” jartzea proposatzen dugu.

*“Ingurumenaren arloko Lankidetzaren Erakunde berrakidetzaren buruzko araudi espezifikoaren indarrean sartu arte, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Elektronikoko buruzko ----- Dekretuari jarraiki, Dekretu honek egotzen dizkien eginkizunak Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak **arloko administrazio-erakunde eskudunak** gauzatu ahalko ditu. Beste batzuen ordezkaritza gisa jardunez gaitzeko baldintzak eta horien zerrenda eguneratua IKS eeM Sistemaren egoitza elektronikoa jasoko da.”*

6/12j

### Lehenengo Azken Xedapena: Gaikuntza

- Honakoa dioen beste Lehenengo Azken Xedapen bat eranstea gomendatzen da (eta, ondorioz, egungoa Bigarrena izatera igaroko litzateke):

#### Lehenengo Azken Xedapena

**“Kontsultarako eskuragarritasuna: xedapen honen testu osoa kontsultatzeko eskuragarri egongo da erregistroa sartzeko egoitza elektronikoa”.**

Horrela, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 25.1. artikuluan xedatutakoa betetzen da.

- Gure bigarren oharra hizkuntzaren erabilera barne-hartzaileari buruzkoa da. “Consejera” terminoa femeninoan erabili beharrean, egokiagoa litzateke “**la persona titular de la Consejería** competente...” jartzea.



## I. ERANSKINA. DEKRETU HAU APLIKATZEN ZAIEN INGURUMEN-ARLOKO ADMINISTRAZIO-PROZEDUREN ZERRENDIA

- Lehenbizi, Dekretuaren Proiektua irakurrita argi eta garbi ondorioztatzen da Dekretuaren I. Eranskinean jasotako zerrendakoak ez ezik Ingurumen Sailaren parte-hartzea duten prozedura “guztiak” kudeatu beharko direla IKS-eeM Sistemaren bitartez.

Hala ere, sailburuaren aginduaren bidez I. Eranskina eguneratzeko beharrak (Lehenengo Azken Xedapenean jaso den bezala) kontrakoa adierazten duela ematen du; izan ere, zerrendak, xehea izango ez balitz, ez luke eguneratzerik beharko.

Zentzu horretan, zerrenda xehea izango balitz, argi ikusten da ez dagoela hondakinen trafiko-betebeharririk (Kontrolerako eta Jarraipenerako Dokumentuak, Onarpen Dokumentuak, Lekualdaketan Jakinarazpenak), Hondakin Arriskutsuak Minimizatzeko Planik edo Ontziak Minimizatzeko Planik.

Hori guztia dela eta, I. Eranskina nolakoa den zehaztu beharko litzateke (xehea ala ez xehea), eta, “ez xehea” dela zehaztuz gero, Lehenengo Azken Xedapena kendu beharko litzateke.

- Bigarrenik, 18. artikulua iruzkinean adierazi dugun bezala, A) PRTR: Elementu kutsatzaileen transferentzien eta isurtzeen Euskal Erregistroaren menpeko Jarduerak idatz-zatiari dagokionez, berriz esan behar dugu ez dugula izen hori duen inolako erregistro ofizialik aurkitu, eta, ondorioz, horren ordez ondorengo testu hau jartzea proposatzen dugu: A) PRTR: **“Elementu kutsatzaileen transferentzien eta isurtzeen erregistroa egiteari buruzko eta Batzordearen (E-PRTR) 91/689/CEE eta 96/61/CE Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2006ko urtarrilaren 18ko 166/2006 Araudiaren (CE) aplikazio-esparruan sartutako”** jarduerak.
- Hirugarrenik, H) LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN PROZEDURAK idatz-zatiari dagokionez, eta, zehazki, “Ingurumenarekin lotutako boluntario-lanak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak” idatz-zatiari dagokionez, Dekretuaren

bidez sortutako erregistroan izena eman behar duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen izendapenaren eta erakunde horientzako laguntzak arautzen dituen aginduaren (2011ko ekainaren 8ko 124/2011 EHAA AGINDUA) irismenaren artean kontraesan bat dagoela ematen du.

Hori dela eta, ondorengo aldaketa hau egitea proposatzen dugu:  
“H) LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN PROZEDURAK

...

*Ingurumenarekin lotutako boluntario-lanak-Ingurumenarekin lotutako boluntariotza-proiektuak eta ingurumenaren arloko hezkuntza, informazio, partaidetza, trebakuntza eta sentsibilizazio proiektuak gauzatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntzak.*

6/12j

#### IV.- ONDORIOAK

---

Euskal GABak egokitzen du ingurumenarekin lotutako administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoak erabiltzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa sortu eta arautzeari buruzko Dekretuaren Proiektuaren inguruko tramitazioa, erakunde honek egin dituen iruzkinekin.

Bilbon, 2012ko otsailaren 22an

Presidentea O.E.  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos





CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-544-12